

Inma Errea

## Zilbeti

**A**spalditik bizi naiz handik at, eta gutxitan, gero eta gutxiago, joaten naiz hara, baina, txikitako bizipenek erabat markatzen omen baikaituzte, niretzat Zilbeti zerbait funtsezkoa da. Txikitan sakonago hartzen nuen arnasa hara joaten nintzenean. Adi mendira begira, hiriko bizimodu estuak katramilatzen zizkidan korapiloak desegiten sentitzen nituen, eta saltoka eta kantuka abiatzeko gogoa pizten zen ene baitan.

Horregatik, Zilbetiri zor dizkiodan bizipen funtsezkoengatik, bertan harrobi bat egin behar zutela esan zutenean urradura moduko bat sentitu nuen errailetan. Gero gauzek okerrera egin dute. Harrobiaren kontua dela-eta herria bitan partiturik dago, eta hori herri txiki batean tragedia handia da. Herriari lotutako guztiok posizioa hartu dugu, eta horrek zail bihurtu ditu harremanak gure artean. Batzuek konpromiso handiagoa hartu dute, edo jendaurrekoagoa, baina gure engaiamenduari (argi esanen dut: harrobiaren kontra nago ni) isilxeago eutsi diogunok ere sakon sentitzen ditugu deserosotasuna eta samina. Harrobiaren aldekoen artean, lagun izan ditut asko. Lehen normal eta aise zihoazen harremanak gaiaren inguruan ezinbestean sortutako tabuak zail eta deseroso bilakatu ditu.

Jendearen harremanetan eginda dago gaitza, eta zaila izanen da urratutakoa berregitea. Ingurune naturala ere kalte larriak nozitzeko bidean da, krisia estakuru eta lagun.

Izan ere, harrobia defendatzen duten askok lanpostuen alde egiten dutela diote. Lanpostuena beti izan da argudio bikaina edozein gauzatarako (are bikainago krisi garailetan). Garoñakoek ere zentral nuklearrako lanpostuak defendatzen omen dituzte. Eta enpresaburu askok behin eta berriro esaten digute lan-merkatua malgutu behar



dugula (hau da, laneko egonkortasuna makaldu eta langileen segurtasuna urritu) lanpostuak sortzeko. Baina Zilbetiko balizko harrobian sortuko diren lanpostuak zein Zubiriko fabrikakoak etorri bezala joango dira enpresaren jabeek hala komeni bazaie (galdetu Baiona aldean...). Eta bada go lanpostuak beste modu batean sortzea orain arte nagusitu den garapen suntsikor eta suntsigarriari (garapen iraunkorra edergarria baino ez da maiz boteredunen proiektuak zuritzeko) lotu gabe.

Lanpostuak sortzea ezin baita izan edozein gauzatarako arrazoi. Ez, adibidez, harrobi batek ehunka urtez osatutako pagadi babestua eta desagertzeko zorian dauden bertako animaliak desagerrarazteko. Hori defendatzen dutenek, edota beste alde batera begiraturaz horretarako lekua ematen dutenek, erantzukizuna dute, guztiok dugun bezala, Lurrarekin eta etorkizuneko jendearekin. Daniel de Roulet ingeniari suitzarrak, *Ez duzu deus ikusi Fukushiman* itzuli berri dudan liburuan, hau dio energia nuklearraz eta Fukushiman orain (eta Three Mile Islanden eta Txernobylen lehenago) gertatutakoaz: “Geure tranpan harrapatuak izan gara: sistema bati lagundu diogu jakinik sistema horrek heriotza izugarria zekarrela bere baitan, eta aldika baino ez dugu izan adorerik geure idealen alde egiteko”.

Ni ez nago prest idealei izkin egiteko, eta larria iruditzen zait beren burua ezkerreko edota abertzaletzat jotzen duten alderdi eta sindikatu batzuegan igartzen dudana epelkeria ingurumen-gaiez bezainbatean (galdetu Castejónen edo Iruñeko Arantzadin...). Eta ez dut hau guztia esaten Zilbetiko bazterrak (eta jendeak) maite dituzten (horregatik ere bai), bai- zik eta, berriro ere, donona den zerbait suntsitzera doazelako atzerakorik gabe. ■

Zilbetiri zor dizkiodan bizipen funtsezkoengatik, bertan harrobi bat egin behar zutela esan zutenean urradura moduko bat sentitu nuen errailetan. Gero gauzek okerrera egin dute. Harrobiaren kontua dela-eta herria bitan partiturik dago, eta hori herri txiki batean tragedia handia da

